

2024ko EKAINAREN HAUTESKUNDEAK

- HAUTESKUNDE ERROLDAREN BULEGOA-

ALDI BATERAKO ATZERRIAN DAUDEN HAUTESLEEK BOZKATZEKO ESKAERA
– ORRI OSAGARRIA –

Orri osagarri honekin batera doan inprimakia hautesle bakoitzak bete behar izango duen eskabide-eredua da dagokion Hautesle Erroldaren Bulegoko Probintzia Ordezkaritzari hautesle-eroldako inskripzio-ziurtagiria eskatzeko. Horrela, **ekainaren 9an** egingo diren hauteskundeetan botoa postaz eman ahal izateko prozedura abiaraziko du.

NORK ERABIL DEZAKE ALDI BATERAKO ATZERRIA DAUDEN HAUTESLEEN BOZKETA-PROZEDURA?

Hauteskunde-deialdia egin ondoren, aldi baterako lurralde nazionaletik kanpo dauden hautesleek eman ahal izango dute botoa prozedura honen bidez, baldin eta egoera horretan egotea aurreikusten badute bozketa-egunera arte eta Matrikula Kontsularraren erregistroan ez-egoiliar gisa inskribatuta badaude.

Matrikula Kontsularraren Erregistroko eskaera eta inskripzioa ekitaldi berean egin daitezke.

Botoa posta bidez emateko eskaera egiten eta onartzen bada, ezin izango duzu mahaian botoa eman.

BOZKATZEKO PROZEDURA:

A. ESKAERA

Eskabide-orria Karrerako Bulego Kontsularraren edo Enbaxadako Atal Kontsularraren jaso daiteke, edo telematikoki deskargatu Barne Ministerioaren webgunetik infoelectoral.interior.gob.es edo Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministeriotik www.exteriores.gob.es

Hauteslea hautesle-eroldan inskribatuta dagoen probintziako Hautesle Erroldaren Bulegoko Ordezkaritzara zuzendu behar izango da eskabidea.

B. AURKEZTEKO LEKUA

Eskabidea, beteta eta sinatuta, Karrerako Kontsuletxeko Bulegoan edo Enbaxadako Kontsuletxeko Atalean pertsonalki aurkeztu behar da. Kontsulatuko funtzionarioak identifikatzeko eskatuko dio hautesleari nortasun-agiria edo pasaportearen erakutsiz, eta Kontsulatuko Matrikularen Erregistroan ez-egoiliar gisa inskribatuta dagoela egiaztatuko du, bai eta sinadura bat datorrela ere.

Karrerako Bulego Kontsularrak edo Enbaxadako Atal Kontsularrak eskaera berehala bidaliko dio dagokion Hauteskunde Erroldaren Bulegoaren Probintzia Ordezkaritzari.

C. POSTA BIDEZKO BOTOA ESKATZEKO EPEA

Deialdia egiten den egunetik **maiatzaren 11ra arte** eska daiteke.

Hala ere, **eskaera lehenbailehen egitea** gomendatzen da.

D. POSTA BIDEZKO BOTOA EMATEKO DOKUMENTAZIOA BIDALTZEA

Dagokion Hauteskunde Erroldaren Bulegoaren Probintzia Ordezkaritzak **maiatzaren 14an** hasiko du hauteskunde-dokumentazioa bidaltzen. Eskabidean adierazi duzun helbidera eta zure izenean bidaliko da.

Agiri horiek jaso izanaren agiria interesdunak berak sinatu behar izango du, bere nortasuna egiaztatu ondoren.

E. POSTA BIDEZKO BOTOA BIDALTZEKO EPEA

Botoa posta ziurtatu bidez bidali behar da ekainaren 5a baino lehen.